

Suiza'ko turismoa Bertatik jaso ditzazken ezperientziak

Emen jarriko ditudanak, bear bada, ez dira izango orren egokiak astekari baterako, baña turismoari indarra eman nai dan denbora auetan ez datorzki oso desegoki.

Suiza garestia da. Fama ori du alde guzietan. Bizibide egokian daude bertako langileak, irabazpenak aundiak dira eta orrek garesten ditu gauzak, batez ere atzeritik dijoaztenentzat.

Garestia izanarren, turismoa egoki antolatua dago eta, siniskaitza baderitxugu ere, turismoa egiteko askokuste baño merkeago da. Inium ez baita ostarako antolamenik berak bezin ondo eratuta. Beste edonum bi egun bear dirana bazterrak ikusteko, bertan egun batean egin genezake. Orrelakoa baita suizarren organizazioa. An ezta ezertarako denbora galtzerik: autobusak, trenak, baporak, teleferikoak... guziak daude kate baten alkarri loturik eta guziak ordu berean puntu-puntuant dabilta. Guk ere, turismoari probetxua ateratzeko, badegu zer ikasi aiengandik.

Monumentuetarako eta museoetarako sarrera ezta garestia. Erakuslerik ezta izaten, geienetan beintzat. Merkeagoa gaitik eta nai duenak denbora irabazteko. Bere ordez, planoa eta orri edo liburuxka ematen dute, nai dan izkuntzan. Sarri, espantiles ezta arkitzen. Baño Chillon eta Thun-eko gazteluetan, uzte det, euskeraz ez beste guziak.

Garestiena lo egitea da. Orregaitik normairi camping errekomendatzen diogu. Beraiak ere, geienak ori egiten dute. «Zimmer» edo «Chambre» jartzen duten etxeetan gela artu genezake, baña gau bakoitzeko 200-250 pesetara kostatzen da. Eta, tienda kanpaa bat jartzea, autoarentzako tokia, bear diran ur eta garbitzeko toki ta guzi, eguneko irurogei peseta dira iru izarreko terrenoetan eta oietariko geienak igarirako tokia ere izaten dute. Izar bikoak eta batekoak merkeago dira, ta aietan ere ezta palta ur eta gañerako-eginda edo egiteke, saltzen dituzten denda izaten da, oso merke.

Gañerako ostatu eta jaltetxe-ekinkontuz ibilli bear da. Alde aundiak daude toki batetik bestera. Arritzekoa bada ere, orain bi urte, berrogetaamabost peseta gaitik ollazko-erre bero ta guzi bazkaldu genun Ginebran (Genève) auto-zerbitzu batean, eta Montreux-eko jaltetxe apal

batean irurogei peseta gaitik apaldu. Zer eskatzen dan ere kontu aundia izan bear da. Gauza batzuetatik besteetara alde aundia izaten da. Batez ere, edariak dira oso garestiak. Thun-en, igazko urtean,jatetxe egoki batean, bazkaria eun da amar peseta kostatu zitzaigun, baña botilla bat ardo laroei peseta. Gañera, bizi guzian edan dedanik ardorik txarrena. Edatallea ez itzeak bere alde onak ditu erbestetik zear biatzekoko. Ur-mineralak emen baño merkeago dituzte, eta batetik-bestera biaejan ibiltzeko ez dago edari oberik. Gorputzarentzat osasungarriagoa da. Au ere ikasi bear degu. Ardoa, edari ustel bat da bere ondoan.

Baña ezta ori bakarrik. Orrez gañera, beste ikaspede asko ditugu ihelvetarren gandik, lana ongi egiteaz aparte erri aietako garbitasunak, jendearen laguntzeko prestutasuna eta komunikazioen antolakizuna. Esan ditzake, erkide guziak era guzietan daudela turismoaren zerbitzari. Ta gañera erririk txikienetan ere informaziorako etxe berzeziak arkitzen diralarik.

Gasolina, emen baño eunetik berrogeiko bat merkeago da. Ta, norperaren berezibil bat ez izaterra, an bertan errentan arkitu lezazke, nai beste egunerako. Ez dira garesti izaten. Ta, Suizaren muban, Prantzia partean merkeago oraindik.

Eta, norperaren autoa bada. Atzerriako seguroaren paper berdearekin, turista bezela, gasolina merkeago lortu genezake, bai Frantzia, bai Suizan edo Europa guziko naziorik geienetan. Turismoko etxeetan edo diru bankoetan tikeak aurraz atezaz.

Espanian ezta ango aukerarik camping-ean ibiltzeko; batetik, terreno gutxi daude ortarako gertuak, eta bestetik, arritzekoa bada ere, ezta camping-erako bear bezela berotuta gertatzeko janaririk arkitzen. Ta, an aukera aundiaz gañera, oso merke.

Emengo beste oker bat da, kamiñorik geienak oso txarrik dirala. La Coruña edo Españaiko ego aldera baño, gaur-gaurkoz, aukera ohea da Suizara joatea. Camping egitekoan beintzat. Ostataua, danean da garestietzi, Suizan garestiago bada ere. Camping-ean, bi lagunek, eguneko berreun pesetatik bere bear dituzte, biajeko gastuak aparte dirala. Ta, ori ezta posible emen bertan egitea. Orregaitik, askok uste baño merkeago da atzerrian oporrak igarotzea.

Adibidez, orain bost urte, bakarrik atera nintzan trenez Alpe-etarara, bizkarrian sakela eta laumilla peseta boltzilloan. Chamonix inguruak ikusi, Mont-Blanc-era eta Agilles Rouges-ko



Clochetons eta Grant Clochergo aizorrotzak igo eta amabost egun ondoren itzuli berriz trenez Montréjeau-ra, eta andik auto-stop egiñaz Luchon-era, ta Luchon-dik mendiz, Pirineoak igaroaz La Reclusa (Benasque) deritzen dan erreferjiora, an El-goibarko adiskide batzuekin alkatzeko eta Aneto ta Posets mendietara igo ondoren etxeratu. Eta oraindik dirua nuen patrillkaran. Ori izan da egindetanik abenturarik aundienetako bat. Zergaitik, Prantzia aldetik Valle de Aran-erako asmoan atera nintzan etxetik eta jira-bira guzi oiek egin nituan. Ustekabean, orduan konturatu nintzan paraje oietatik biatzekoa etzala orren garestia.

J. SAN MARTIN

Wilhem Kempff pianista Donosti'n

Aldi berean,Cultura Musical deritzan Elkarteak,bi gain-gaifneko artista ekarri dizkigu Donostia'ra:bi gizon gutxitan ikusten diran bezelakoak Musikaren Kondairan.

Azaroan,ertilari goieneko Arthur Rubinstein'en jarduketa arrigarriaren berri emen genduen.Aren izena goratu bearrik ez degu.Mundu guzia bere izenak betetzen baitu.

Gaur,beste ertilari baten jarduna entzun degula pozik jakin-arazten dizuegu.Bigarren ertilari au,bere lan arrigarria gure artean erakutsi duan au,Wilhem Kempff,alemana da

Antzokia,bete-betean zegoen, eta entzuleen artean garbi nabaitzen zan,ertilari oni entzuteko irrika ta azkurea.Gure gozoo ase-bete zan,Wilhem'en joaldiarekin.Donostiarrak,txaloka ertez lertzekoak ez geran arren,antzokia,ertilariaren lanean buru ta biotz lotuta,txaloz aidatu zan.

Jardun -aldian zear,Maixurik onenen musika aditu genduen. Naiz klasiko izenekoa,naiz erromantiko aldikoa.

Haendel'ekin eman zigun asiera,bere aldeak betez. Gero, Schumann'ekin sartu zan, onen erromantiko indarra ta aunditaurina,bere joeraz aide berriz eta eragiñez jantziaz.Benetako estilari degu aleman au!

Bigarren joaldian,Brahms'en musika samurrax asi ta Beethoven'en burrunda sakonetan eraman ginduen.Maixu onen esku-



ak ba-dakite,musikalari gaillen auen espiritua atkitzen eta inguruan arrigarritzko eran zabalitzen. Eta entzuleok,sorginduta gelditu giñan Wilhem'en lanaren sareetan.

Bere egitekoa beteta gero,bere gogoz Schubert'en Impromptu bat ere jo zigun,eta an neurtu al-izan genduen ertilari bikaiñaren sentipen eta dardara bizia.

Musika-saioa goienekoa benetan,azkenengo au.Ta Cultura Musical elkarteari eskerrak, orrelakotxe aukerak ditugu Donostia'n,ertilari erraldoi auen jo-aldiak aditzeko.Ez da gutxi gure gizaldiko gizon yayoen lana ezagutu ta txalotu al-izatea.

IBARRETXE

— NERE SENARRAK ERE BADU LIBURU BAT, ETA OSO KOLORE POLITAK OMEN DITU.

GURE KONTSEJUA DA

ZOAZ Anjelita Martínez'era BITXITEGIA

Au da euskaldunen etxea. Bertan arkituko dituzu salgai merkeak eta balio ta iraupen aundikoak.

Plaza de Guipúzcoa, 11

SAN SEBASTIAN

"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN

FRANQUEO CONCERTADO N.º 31 - 21

JUAN ZULAICA
legado de Aranzazu
NAIE